

Goierri tarra

322. zenbakia 2007ko ekainak 8

Motorrak sortzeko artea **CHOPPERRAK**

Dolarea
j a t e t x e a

www.dolarea.net

Nafarroa etorbidea, 21
20200 Beasain
T 943 888 829

*Aho finen
gozāmenerako...*

restone

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
Instalazio industrialak eta etxeokak, eguzki-energia.
Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
Tel.: 943 653 307
Tel. / Fax: 943 650 520
E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
Fax: 943 675 421
E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



POLIURETANOZKO LEIHOAK




Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

*I. Fdez Ornaburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.*

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



Moldatu zure gorputza,
KENDU LEKUKO GANTZAK
KIRURGIARIK GABE,
ultrasoinuen
bidezko lehen teknika
ez erasokorraren bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE
CONTOUR I
Metodoa

R.P.S.:32/04

BERTSOTAN

Lazkao-Txikik Ixabel Olanori

Sankristauaren alaba Ixabel oraindik daukat gogoan, ikastola bat txiki-txikia hor nola ipini zuan, gure Patxiko txorrotxailea bizirik zegoen orduan, hasera batez hola egiteko lan asko egin zenduan. (BIS)

Ta zorionak berriz Ixabel eman nahi nizuke zuri, gaur ulertzen e(re) ez baita errez egin zenduen lan hori, zu zinalako euskera eder bat eman zenien askori, zuri zorionak ta beste hainbeste han ikasi zutenari. (BIS)

Izan liteken garai txarrenez zu hasi zinan lanean, zuk kezka zendun euskerarekin bihotzaren barrenean, horregatikan hartzen zaitugu guztiok zorionean, medaila eder bat merezi dezu jubilatzen zeranean. (BIS)

Lazkao-txiki ren bat-bateko hiru bertso hauek, Beasainen 1990eko maiatzaren 18an ikastolaren 25. urtemuga zela eta antolatutako bertso-saioan kantatu zituen. Gaia: Ixabel Olano, irakasle aintzindaria.

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L.

**Urbalde plaza, 7 - behea
BEASAIN**

Posta elektronikoa:

goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56
943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Azaleko argazkia: ACV
multimedia

Goierritarrak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Goierritarra

diruz laguntzen duten erakundeak:

Itsasondoko udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

AURKIBIDEA

4. Iritzia: Rufino Iraola.

5. Ingurugiro txokoa: Ibaialde 2007.

6. Euskara txukuntzen:
Bera/berdina.

8. Errezeta:
Otarrainxka entsalada.

Aholkua:

Ordenagailua: mahai gainekoa ala eramangarria?

9. Erreportajea: Saharako eta Bielorrusiako haurrak Goierriin.

14. Erreportajea: Motorzaleen bilkura Ordizian.

18. Erreportajea: Andres Urdanetaren hizkeraz.

20. Garai batean....: Florentino Goiburu: Limosnako arkumea.

24. Iragarki laburrak.

26. Argazki zaharra.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



Rufino Iraola Garmendia

‘Si vis pacem, para pacem’

Zurutuza ez dabil sasiei su ematen. Ez da gerrazalea. Ez da gerrazalea, gerrak gauza bat eskatzen duelako: gorrotoa. Egia da, ez dago bizitzerik ezer gorrotatu gabe. Eta Zurutuzak zer gorrotatzen du? Zurutuzak gorrotoari berari dio gorroto.

Utopia? Eta zer? Utopia asko behar ditu gizakiak. Errealistak zaretela esango dizazue. Zer da errealista izatea? Utopian sinestea ere errealista izatea da, ez dago ezer utopia baino “errealagorik”, dena utopia baita bizitza honetan. Dena iritsi ezina, dena kokatu ezina. Kokaturik dagoela diotenak gezurra dio.

Ez dago kokatzerik, geu mugitzen ez bagara kokalekua bera mugitzen da eta. Sekula aurkitu ez duen egiaren bila dabil gizakia. Hala behar da, zeren eta sekula ez aurkitzeak ez du esan nahi inguratuko ez garenik.

Utopia eguzkia bezala da: ez zaitezte bertaratu, baina distantzia egokian jarritz gero, berotu egiten du, bizia ematen du. Era berean, utopiak ere piztu egiten du, bizitzeko motibo bilakatzen da, eta medizina guztietan onena bera da.

Jainkoa utopia bada, bedeinkatua izan dadila. Utopia horrek zenbat jende egiten duen zoriontsu mundu honetan, eta zelako indarra duen bizitza antolatzeke; galdetu bestela kartujo bati. Zerk eusten dio bere idealari, utopiak ez bada? Zergatik da gai bizitza osoa sakrifikatzeko? Edo zerk ematen dio indarra iraultzaile bati? Utopiak.

Utopia ezinbestekoa da, gerra ez. Gerra aihenatu egin behar da. Egia esan, nik gerra onartuko nuke, ez baneki irabazten duenak ere galdu egiten duela. Gerran ez dago irabazlerik, lau deabru-eme izan ezik: armak egiten dituztenak, botereari eutsi nahi diotenak...

Zurutuzak negar egiten zuen txikitan, pentsatzean hazitakoan gerrara joan beharko zuela, orduan gerra bakea baino ohikoagoa baitzen.

Gizakia ez da jaio sufritzeko; sakrifizioak egiteko bai, baina berak nahi duenean eta berak nahi duen utopiaren ize-nean, inori kalterik egin gabe.

Behin batean, utopiaren bila zihoala, bertsopapera aurkitu zuen. Hura poza hartu zuen lehenengo bi lerroak irakurtzean:

Ni ez naiz gerraren zale
baizik bakearen alde.

Gero, ordea, erruz tristetu zen:

zeinek nahi duen galde,
berari tira, dale!
bala bat sartu buruan
isilduko da orduan.

Ez eta ez! Gerrazalea ere onez onean ekarri behar da sailera. Tiro egiten badiotzu, arrazoi ematen ari zara. Ez, ez zaio inori balarik sartu behar buruan, bestela zeu ere harekin batera hilko zara.

Gerra «justuak», gerra «defentsiboak»... Erraza da gerra mozorrotzea, baina ez dago gerra justurik eta gerra defentsiborik. Gerra guztiak injustuak dira, gerra guztiak ofentsiboak dira. Gerrak hankaz gora ipintzen ditu printzipio etiko guztiak. Eta munduko kontraesanik handiena da gerra arautzea, gerra, berez, arau guztien aurkako jokaera baita.

Gerrak madarikatuak dira. Zurutuzak badaki. «Gerrari gerra» esango du hark. Gezurra eta martigala dira gerraren osagai nagusiak. Armatuta dagoenak nahi izaten du, beti, gerra.

Ez sinestu ezer gerra justifikatzera datorrenari edo gerra jakin hura beharrezkoa zela “demostratu”-nahi duenari, gerra guztiak injustuak baitira, inmoralak baitira.

Sinestu utopian! Bake osorik aurkituko ez baduzue ere, gerratik aldenduko zarete behintzat.

Pello Zuturuza dixit.

Sinestu utopian!

*Bake osorik aurkituko ez baduzue ere,
gerratik aldenduko zarete behintzat.*



kutxa

Ibaialde 2007

Ibaialde Ingurumen Hezikuntzako programaren bidez, ingurumen taldeak eta Lurralde Antolamendu Sailak hurrengoa lortu nahi dute; Ibaiei lotutako ekosistemen ezagutza bultzatu, jarrerara errespetagarria lortzea eta ekosistema hauen aldeko parte hartzea sustatzea. www.euskadi.net/aztertu (informazio gehiago nahi baduzue).

Landarlanetik elkartu gara, Oria ibaiaren azterketa analitikoa egiteko. (Parametro desberdinen neurketa egin dugu, uraren kalitatea ezagutzeko).

- Kokapena: Zegamara abiatu gara goi-erdiko ibilgunearen mugara, Intxusti baserriaren eta industrialdearen artean azterketa egitera. Ibaia bideratuta dago partzialki, horma eta eraikinarekin. Hodiak ere badaude errekarazuzendua.
- Deskribapena: 2-5 m bitarteko zabalera eta 0,5 m-tik beherako sakonera. Ohantzea lohiaz eta hartxintxarraz osaturik dago. Abiadura 0,83m/s
- Landaretza: Gu gauden kokapenetik goialdera berezko landareria aurkitu dugu: haltzak, lizarak, zumeak. Sasien artean Avena sativa, azeri buzta, asuna, bardana, geraniazeak, hirusta (Trifolium album), hinojoa aipagarrienak
- Fauna: Atal honetan garrantzitsuenak Bisoi europarraren aztarnak ikusitak baieztazen du inguru honetan bizi dela. Dakizuenek Bisoi europarra galtzorian dagoen espezie da eta legez babestuta dago. Honezaz gain



oso bioindikatzaila ona da ekosistemari dagokionez.

Ikusi genituen hegaztiak: txantxangorria, enarra, kaskabeltza eta Martin Arrantzalea.

Apoa eta sugeak ere erreka honetan aurkitu ditzakegu.

Ornogabe bentonikoak: anfibodoa, efemeropteroaren larba, trikopteroen larba.

Uraren kalitate ona adierazten digute.

- Errekako uraren parameetroak: pH, nitrito, nitrato, gogortasuna, karbonato

gogortasuna, disolbaturiko oxigeno eta tenperatura, neurtu ondoren, esan dezakegu emaitzak egokiak izan direla.

Ondorio bezala, ibaiaren egoera ona dela esan dezakegu nahiz eta oraindik zabor asko jaso genituen (hodiak, plastikoak, motore bat, burnia eta abar).

Argi dago oraindik ez gaudela guztiz kontzientziatuta. Gure ekosistema eza-gutu, maitatu eta errespetatu egin behar dugu.

Maribel Zufiaur Ormazabal

Landarlanetik elkartu gara Oria ibaiaren azterketa analitikoa egiteko: Ibaiaren egoera ona dela esan dezakegu.

JAKIN BEHARREKOAK

Mongrague Parke Nazionala izendatu dute. Extremadurako lehenengoa da. Hegazti harrapari ugaltzaile dentsitate handienetarikoa Europa mailan. Bertan arrisku larrian dauden espezie ugari aurki daitezke: Zikoina beltza, Sai Beltzaren 300 ugaltze bikote, Arrano inperiala, errege Arrano, erregea Hontza, besteak beste.

Argi kutsadura. Zerura zuzentzen den argia alpe-rik xahutzen da eta ez du ezertarako balio. Argiztapen publikoko %60 zerura doa eta hau saihestuz gero %25-%40 energia aurreztuko litzateke. Horrez gain presio baxuko sodio lurrina duten lanparak erabilita erdia kontsumituko lukete eta gainera ez dira merkurio lanparak bezain kutsakorak. Argi kutsadurak erritmo zirkadiarrak aldatzen ditu eta landaretzan eta animalien eragina du. Madril 6.900 astro begi-bistakotik 50 besterik ez dira ikusten. Bestalde Bartzelonako argi haloa 300 km-tara hauteman daiteke. Kutsadura honek ingurugiro inpaktoa ez ezik, instalazioen eraginkortasun energetiko kaxkarra agerian uzten du. CelFosc espainiako argi kutsaduraren aurkako herritar erakundea da eta honi buruz informazio gehiago aurki dezakegu beraien web orrian. www.celfosc.org

Bera / berdina

Maizpide
euskaltegia

Maiz antzean nahasten ditugu. Nola behar dute? Ea ondorengo egoerek ulertzen laguntzen duten...

- egoera:** Anek eta Josunek ezkontza berean egin dute topo. Elkar ikustean barrez (negarrez ere izan zitekeen) hasi dira, bataren soinekoa bestearen **berdina** dela jabetzeaz (*bi soineko, berdin-berdinak*).
- egoera:** Aneri izugarri gustatu zaio Josunek aurreko larunbateko ezkontzara eramandako soinekoa. Anek ezkontza izango du larunbat honetan bertan eta Josuneren soinekoa eraman nahi du soinean. Honek utziz gero, soineko **bera** eramango du (*soineko bakarra*).

Bera hitzak badu, bestalde, beste zeregin bat: aurreko hitzak adierazten duena azpimarratzea. Horrelakoetan aurreko hitzak ere hartzen du deklinabide-marka. Adibideak:

- Aurreko astean Donostiako alkatea (Odon Elortza) izan genuen Ordizian. Datorren astean ere bera izango dugu. *Hau da, **alkate bera*** (aurrekoan etorri zena) etorriko da atzera.*

Eta horrela: *Sukalde **berean** sartu zen* (aurrekoan sartu zen sukalde berean, eta ez beste batean), *Kale **beretik** joango gara* (aurrekoan joan ginenetik)...

- Aurreko astean Donostiako zinegotzi baten bisita izan genuen Ordizian; datorren astean, ordea, **alkate bera** (Odon Elortza) etorriko da. Hori ohorea, hori!

Eta horrela: ***Alkatearekin berarekin** hitz egiteko aukera izango da, **alkateari berari** galdetuko diogu, **sukaldera bertara** sartu da eskalea* (sarrerako atea ireki eta sukalderaino sartu ez da, bada!), ***kalean bertan saltzen dute droga hori*** (ez dugu diskoteketara eta horrelako lekuetara joan beharrik hori ikusteko)...

* Bera edo **berbera!**

Ez da gauza bera:
hezur bera... edo
hezur berdina!



Zuzendu, behar izanez gero...

- Markel kapusai berdina jantzita etorri da aste osoan.
- Irakasleak beti gauza berdina esaten digu.
- Hil berdinean ezkondu ziren bi bikote horiek.
- Pello Errota eta Txirrita alkandora (alkondara) bera jantzita joan ziren bertso-afari horretara.
- Goierritik bertatik pasako omen da aurtengo Tour-a.

OHARRA: Azkena izan ezik, denak gaizki! Lagartzenan bi alkondara gutxienez izango ahal zireni!

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako
mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko:
943 08 55 60

Faxa: 943 08 55 61

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

Aseguru konmedunaria

SEGURUEN PROFESIONALAK

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tfnoa.: **943 88 86 20**
Tfno. mugikorra: **609 49 14 41**
Faxa: **943 88 91 18**
LAZKAO



OIANGUREN BHI

ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA

Altamira Auzoa z/g ORDIZIA

Tfnoa.: 9438 880 862

012282aa@hezkuntza.net

www.oianguren.net

HAUR HEZKUNTZA

(GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA)

Iraupena 2000 ordu (2 ikasturte)

- Haurren mundura gerturatzen.
- Jolasen bidez ikasten.
- Etorkizunerako prestakuntza ezin hobea jasotzen:
 - > Lan mundua: Irakaskuntza, Haurtzaindegia, Ludotekak...
 - > Unibertsitatea: Hainbat lizentziatura eta diplomaturako sarbide zuzena.



AURREMATRIKULA EPEA: Ekainaren 1etik 7ra

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKYNTZA



Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatuak

A. Almeida
943 180 372
651 700 439
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Junkal Elorza
Aramako taberna
Arama

Osagaiak:

- 16 otarrainxka
- 300 gr. zainzuri
- Koloretako bi letxuga
- 2 laranja
- 4 goiladakada laranja zuku
- Arrain salda litro bat
- Aneta pixka bat
- Goiladakada bat ezitia
- 100 gr. maionesa
- Piper hauts beltza
- Gatza

Prestakuntza:

- Salda irakiten jarri, otarrainxkak egosi 2 minutuz eta zuritu.
- Letxugak garbitu eta juliana eran moztu.
- Maionesa, ezitia, laranja zukua eta aneta nahastu.
- Laranja zuritu eta atalak bereiztu.

Zerbitzatzeko:

- Ontzi batean otarrainxkak, letxuga, zainzuriak eta laranja nahastu.
- Gaietik saltsa bota.
- Piper hautsarekin hautsez-tatu.

Ordenagailua: mahai gainekoa ala eramangarria?

AHOLKUA

Gaur egun, teknologiak darman abiadurak bi ondorio ditu: alde batetik prezioak murrizten edo gutxitzen ari dira eta bestetik osagaiak tamainaz geroz eta txikiagoak dira, baina, prestakuntza handiagoak dituzte. Ondorioz, zeinbait kezka sortzen dizkigute, ordenagailu berri bat aukeratzeko orduan.

Mahai gaineko ordenagailua edo ordenagailu eramangarria erosi behar dugu?

Bakoitzak dituen berezitasunak onako hauek dira:

1.- Mahai gaineko ordenagailua: Lanerako erosagoa izaten da eta gaur egun TFT pantaila,

lak, kablerik gabeko teklatuak eta xaguak eta dituzten kaxa txikiekin, egia esan ez dute lehen bezainbat leku bahar. Prezio berdinean, prestakuntza hobeak lortuko ditugu mahai gaineko ordenagailu batean, eramangarrian baino; adibidez: pantaila, disko gorra, abiadura, memoria, dudarik gabe handiagoak izango dira. Baina ordenagailu hau leku batetik bestera eramateko ez da batere erosoa.

2.- Ordenagailu eramangarria: Pixu gutxi dute eramateko, prestakuntza

onak eta asko merketu dira. Gehienbat alde batetik bestera eraman behar dugunean datorkigu ondo eta gaur egun 'wi-fi' edo kablerik gabeko sareak erabiliz gero, ondo datorkigu etxe osoan internetera kablerik gabe konektatzeko. Errezago hondatzen dira, kolpeen ondorioz, kontu gehiagorekin erabili behar dira, eta konponketak garestiagoak izaten dira.

Orain norberak aukeratu dezala ondoen datorkiona... edo biak... lehen batek balio zuenarekin orain bi baititugu.



Jose Luis Estala
Informatika teknikaria
Infonet - Ordizia

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN



*Saharako eta
Bielorrusiako
haurrak*

Opor osasuntsuak Goierriko familietan

Goierriko hainbat familien elkartasunari esker, Saharako eta Bielorrusiako haur talde batek, uda, Goierriin pasatuko dute. Sahararrak, basamortuko berotik ihesi datoz, uztailen iri-

tsiko dira; bielorrusiarrek erradiaktibitate kutsaduratik ihesi etorriko dira ekainaren 22an. Guztiak ere, mediku azterketa egin eta osasuntsu hazten lagunduko diete, urtea, indartsu eta osasuntsu pasa dezaten.



GRAFICAS
EGUZKI
INPRIMATEGIA

NAFARROA ETOR, 17
T/F 943 88 94 82



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
PLOTTER LANAK ETA
PLANOEN KOPIAK

☎ 943 02 73 58
Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN



xetai www.xetai.net
Armairuak · Altzariak
Osagarriak

Tel.: 943 88 43 84
Oriamendi, 30
BEASAIN

LAGO

Saharako haurrak

‘Oporrak bakean’ programaren barruan, Goierriara 11 saharar haur etorriko dira uztailan, bi hilabeterako, basamortuko berotik ihesi. Beasaina 3, Lazkaora 3, Zaldibiara 2 eta Atauna 3 etorriko dira. Zegamara eta Segurara ere etortzekoak dira, Urretxuko elkartetik bideratuta. “Gero eta haur gutxiago datoz, gero eta familia gutxiago daudelako”.

Basamortuan izugarritzko beroa egiten du udan, 60 graduraino irits daitezke. “Itzalik ez dago. Haur batek esan zigun behin: uda, sahararrek eta sugandilaek bakarrik jasaten dute kanpamentuetan. Harriak ere puskatu egiten dira eguneko eta gaueko tenperatura kontrasteen ondorioz. Izugarria omen da”, Amaia Escudero eta Loli Burgos, Goierriko Sahararen Aldeko Lagunak Elkarteko kideek esan dutenez.

Etorri bezain laster, mediku azterketa sakona egingo diete haurrei. Medikuarengana, dentistarengana eta okulistarengana eramaten dituzte. “Normalean osasuntsu egoten dira. Gehienera ere, garrantzirik gabeko anemia kasuren bat, baina berehala indartzen dira elikadura zainduta. Eurek kuxkuxa, zerealak... jaten dituzte, baina haragia oso gutxi. Bi hilabeteen asko indartzen dira. Izugarria da egiten duten aldea”, zehaztu dute Escudero eta Burgosek. Dena den, sahararren lagunek emandako datuen arabera, “geroz eta okerrago daude. NBEk mu-



ritzitu egin dizkiote elikagaiak eta aurreko abenduan, erreserba-biltegiak hustuta zeuden. Hemendik bidalitako karabanarekin pixka baterako edukiko dute. Haurdun dauden emakumeetan anemia ere agertzen hasi da”.

Esperientzia ona

Amaia Escuderoen familia, duela 3 urte hasi zen, udako bi hilabeteetan Saharako haur bat hartzen. Lolik, iaz izan zuen lehenengo esperientzia. Aurten Amaiaren etxera ez da etorriko, familiako arazo batengatik. Lolik errepikatu egingo du eta Beñat eta etxeko guztiak, egunak kontatzen ari dira Naje etortzeko.

Hasiera gogorra izaten bada ere, esperientzia aberasgarria dela azpimarratu

dute beasaindarrek. “Batzuetan luze egiten da, baina merezi du. Ume oso alaiak dira. Familiako haurrentzat oso aberasgarria da. Lana eman bai baina erakutsi ere erakusten dute. Beraien kultura, ohiturak, baloreak... oso aberatsa da. Daukatena banatu egiten dute”.

Lehenengo zailtasuna hizkuntzarena izaten da. “Hizkuntza aldetik, gaztele-ra ez zekien asko, 8 urte zituen umeak. Euskara erakusten ere saiatzen gara baina gaztelez nahiago izaten dute. Dena berria da beraientzat: eskilarak, atea, igogailua, ur beroa ateratzeta, komuneko bonba... Ez zuen ulertzen ur beroa nola atera zitekeen. Janaria ezberdina da, ohiturak ere bai...”, diote.

Arropa kontuetan badute bitxikeriak: “Oso kapritxosoak dira. Gurea eguneror ia bi aldiz aldatzen zen. Praka piratak asko gustatzen zaizkie, zaharra ere ez dute nahi, markakoak... Joteko arropa ere beraiek

aukeratzen dute. Igerilekua oso gustuko dute”.

Bakoitzak bere familiarekin bizimodua egiten badute ere, elkarrekin egotea gustatzen zaie eta familiak saiatzen dira elkarrekin planak egiten. Elkartetik ere, ekinga ezberdinak antolatzen dituzte.

Haurrekin, euren familiarekin eta Sahararekin harreman estua dute Goierriko familiek. “Harremana mantentzen dugu, umeekin eta familiakoekin. Oso harreman estua dugu. Telefonozko harremana. Beraientzako diru iturri bat gara. Askotan hemendik eramaten duten dirua urte osorako izaten dute. Bisitetan jotaten direnek ere eramaten dizkiete sobretxoak. Sobraren zain egoten dira. Hori bai, bueltan ere, jasotzen dugu. Guztientzat opari baina bidaltzen dute”.

Saharako kanpamentuak ere bisitatu dituzte Lolik eta Amaiak. “Oso pozik ikusten dira haurrak. Familia harreman oso estua dute”, diote.

Basamortuan izugarritzko beroa egiten du udan. 60 gradutara iritsi daiteke.

Elkartea

Haurrak hartzen dituzten herrietako udalek ordaintzen dute haurren hegazkin bidaia. "Beasaingo Udalak 6 hurreko kopurua jarrita dauka eta bidaia ordaintzen diete. Haur bakoitzeko, 550 euro kostatzen da", argitu dute.

Dirulaguntzak elkarteetara bideratzen direla eta, Goierriko Sahararen Aldeko Lagunak elkarte sortu berria da Goierri. "Orain adibidez, Beasaingo udaletik, elkarte bezala bidaia gastuez gain, dirulaguntza ere jasotzen dugu", azpimarratu dute. Amaia Escudero Elkarteko lehendakaria, Axun Apaolaza lehendakariordea, Esther Perez diruzaina eta Serafin Jaca idazkaria. Sortu berria da eta proiektuak sortzen joango direla adierazi dute.

Elkartea sortzeko asmotan aspalditik zebiltzan beasainarrak, baina azkenean aurten sortu dute. "Dirulaguntzak eta lortzeko beharrezkoa zen. Beasainen aspalditik geneukan buruan elkarte bat-edo sortzea. Beste herrietakoekin harreman handirik ere ez geneukan. Iaz, Ataungo alkatea, Saharara bertara joan zen eta handik etorri zen elkarte bat egiteko ideiarekin. Azkenean, denon artean sortu dugu elkarte".

'Oporrak bakean' proiektua aurrera eramateaz gain, beste ekimen batzuk



Goiko argazkian, iaz Beasaina etorri ziren haurrak, Beasaingo euren familiekin.

Bebean, Amaia Escudero eta Loli Burgos,

ere egiten dituzte elkartetik. "Elikadura bilketa izan zen egin genuen lehenengo ekintza. 'Oporrak bakean' programa aurrera eramatea da helburu nagusia. Ampo-Poyamen proiektu bat ere aurkeztu dugu, egunkaritxo bat sortzea, kanpamenduen arteko informazioa bildu eta zabaltzeko", zehaztu dute.

Elkartearen eta Sahararen inguruko informazioa zabaltzeko, urrian, Beasainen egingo den Bolontario egunean parte hartzeko asmoa daukate.





ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA · ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA


www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g



Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

Altzariak neurrira
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

☎ 943 16 40 40 - 639 631 640 faxa: 943 16 47 47
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Bielorrusiako haurrak

1986. urtean Chernobilgo zentral nuklearrean izandako istripuaren ondorioak arintzen laguntzeko, hilabete eta erdiko egonaldia egiten dute Bielorrusiako hainbat haurrek Goierriin. Istripua gertatu zenean haur hauetako gehienak, oraindik ere jaio gabe bazeuden ere, kutsadurak kalte ugari sortarazi dizkie. Hori dela, Munduko Osasun Erakundeak, haur hauek, urtean gutxienez 40 egun, beraien herrialdetik kanpo pasatzeko gomendioa ematen du, desintoxikatu eta defentsak areagotzeko. Chernobilgo zentral nuklearraren erreaktorearen leherketaren ondorioz, Bielorrusiako lurren %23 kutsatuta dago, Monse Delgado Ongizate zinegotziak adierazi duenez.

Bielorrusiako haurrei lagundu nahian, Idiazabalen, zortzi bat urte badira, hila-bete eta erdirako, haurrak hartzen dituztela. Bielorrusia eta Idiazabalen arteko harreman, aguraindaren bidez hasi zen, bi herrietako alkateen harremanaren ondorioz.

8 eta 18 urte haurrak etortzen dira. Aurten 15 haur etorriko dira eta Idiazabalgo familietan egongo dira Izaki Goierri taldearen eskutik. Ekainaren 22 alde-
ra etorriko dira eta abuztuaren 8ra arte egongo dira Goierriko hainbat familian, osasun aldetik, indartzen. Aurten, aurreko urteetan baino astebete gehiago egingo dute. "Luzatzeko gogorekin egoten gara, oso laburra egiten da-eta".

Familia horietako bat, Gorka Gelbenzu idiazabaldarrarena da. Aurten zortzigarren urtez, neskato bera hartu izan dute etxean, Irina. "8 urte zituela etorri zen lehenengo aldiz. Familiako bat gehiago da", zehaztu du



Gorkak. "Hirugarren edo laugarren urtean, Luda ahizparekin etorri zen eta biak eduki genituen etxean. Baina ahizpak 18 urte bete zituenean, ezin zuenez etorri, orain bakarrik etortzen da", gaineratu du.

Ekainaren 22a noiz iritsiko zain dira Gelbenzutar-
rak. "Bera ere gogoarekin etortzeko dago. Zergatik ez dugun sarriago deitzen esaten digu. Harremana mantentzen dugu", adierazi du Gorka Gelbenzuk.

Eguzkia eta janari osasuntsuak

Onura handia da bielorrusiar haurrentzat Goierriin egiten duten egonaldia. Gorka Gelbenzuk eta Monse Delgadok esandakoaren arabera, "udako egonaldi horrekin, urte guztia medikuarengana joan beharrik

gabe pasatzen omen dute". Janari garbiak eta eguzkia dituzte bitamina iturri onenak, osasuntsuago izateko. "Jan garbiak behar dituzte, nahiko lurra kutsatuta dagoela esaten dute. Eta eguzkiaren beharra ere bai", zehaztu dute. "Pisuan izugarrizko aldea egiten dute. Guk beti pisatzen dugu, etorritako egunean eta joaterakoan eta aldea ikaragarria da. Beste kolore bat hartzen dute..."

Janari kontuetan, gehiena zer gustatzen zaien jakin nahi izan dugu: izozkiak, tomatea, Coca Cola eta batzez ere fruta. "Han limoia asko jaten dute. Han letxuga adibidez, ganaduarentzako izaten da eta hemen guri jaten ikusita, harritu egiten dira".

Euskal Herrira etorritakoan, osasun azterketa egi-

ten zaie bielorrusiarrei. "Aurten lortu dugu Eusko Jaurlaritzaren bitartez, dentistarengana joateko bonoa ere", dio Monse Delgadok.

Bielorrusiatik ateratzen diren haurren aukeraketa eta bideraketa, Independent Children Aid's erakundearen bidez egiten du Izaki Goierrik. Batez ere familia xumeenak hartzen dituzte kontuan.

Bidaia eta gastuak

Bi egun eta erdiko bidaia egiten dute Bielorrusiatik Idiazabala etortzeko. Autobusez egiten dute bidaia. "Mugan ordu asko pasatu behar izaten dituzte, paper kontuengandik", azpimarratu du Delgadok.

Bidaia gastuak ordaintzeko, Euskal Telebistako Firin Faran saiora joaten dira ikusle bezala eta ordainetan ematen dieten diruarekin, haurren bidaia ordaintzen dute.

Haurrekin batera, begiraleak ere etortzen dira. "Idiazabala etortzen dena mojen etxean egoten da", zehaztu dute.

Itzulerako bidaia, desoro-
rosoagoa egiten dute, pol-

Udako egonaldi horrekin, urte guztia medikuarengana joan beharrik gabe pasatzen omen dute

tsaz eta maletaz gainezka eramaten baitute autobusa. "Itzuleran arropa eta janari poltsen artean, estu-estu joaten dira. Jaboia, txanpuak, latak, olio, azukrea, txokolatea, kafea... eramaten dituzte. Postaz bidaltzeko garantiarik ez dago".

Hizkuntza arazoa

Hizkuntzaren arazoarekin topo egiten dute lehenengotik udan sortzen den harreman honetan. Dena den, urtetik urtera aldatzen ari da. Lehenengo urteko esperientzia ondo gogoan du Gorka Gelbenzuk. "8 urtekin etorri zen eta berarentzako ere, etxetik kanpoko lehenengo esperientzia zen. Guk lagundu nahian, elkar ezin ulertu... lehenengo egunak oso gogorak izan ziren, bai haurarentzat eta bai familiarentzat. Esaldien txuletatxo bat baldin bage-neukan... Gure etxean erdaraz hitz egiten dugu. Esaldi motzak eta ondoan itzulpena zuen papertxo bat geneukan. Umea negarrez zegoen bakoitzean, zer izango ote zuen asmatzen aritzen ginen, esaldiak seinalatuz, asmatu arte. Ez bagenuen asmatzen, begirale-ari deitu eta hark esaten zigun. Lehenengo urtean, elkarrizketa simple bat eramateko gai zen. Bigarren urtean, irakurtzeko eta idazteko ikastarotxo egin zuen eta gai zen irakurtzeko eta idazteko ere. Gure kasuan



Goiko argazkian, bi haur bielorrusiar (argazkian zabarrenak) berriko beste bainbat haurrekin.

Bebeko argazkian, Monse Delgado, Bea eta Gorka Gelbenzu.

erdaraz, eta besteenean euskaraz. Izugarritzko erraztasunarekin ikasten zuten".

Haurren egonaldi garaian ekitaldi ezberdinak antolatzen dira, haurrak eta familiak elkarrekin egoteko. Herritarrek ere parte hartzen dute, "nahiz eta umeak ez ekarri, herritarrak beti laguntzeko prest egoten dira", zehaztu dute Gelbenzuk eta Delgadok.




Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 881 944
Ordizia


Oskarbi Oinetakoak
Nagusia 34
Tel 943 884 104
Beasain

Oskarbi Oinetakoak
Sekundino Etnaola 8
Tel 943 721 078
Zumarraga


Oskarbi Oinetakoak
Erdiko Kalea
Tel 943 711 804
Arrasate

O





SILVIAMIRASCASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL Zka: 649 RPS: 144/02



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

SOLOZABAL

AUTO-ESKOLA

Mota guztietako gida-baimenak

Aita Urdaneta
ORDIZIA
☎ 943 88 72 76




Sugoi Goierrik antolatuta

Motorzale familia Ordizian elkartuko da asteburuan

Ostiral arratsaldean, entzungo dira lehenengo motor hotsak Ordizian. Sugoi Goierri motortzaleen elkarteak antolatuta, Motorzaleen II. Bil-

kura egingo baita. Elkarteko lehendakaria den Jose Luis Amatriainek eman digu guztiaren berri. Ordizian ikusgai izango dira bi goierritarrek egindako motorrak.




MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94

Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Jauregi
TOLDOAK



INSTALATZAILE OFIZIALA



Laza

LLAZAPLUS ZENTROA

T 943 880 243 Antzizar auzoa z/g - Beasain

300 motorzaletik gora espero dituzte asteburuan Ordizian. Euskal Herritik eta Estatu Espainiarreko puntu ezberdinetik etorriko dira. “Gu ere horrela ibiltzen gara. Oso urrutira ezin da joan, itzuli ere egin behar da. baina 300-400 kilometro bueltan ibiltzen gara”, zehaztu du Jose Luis Amatriainek. Motorzaleen bilkura baldin bada ere, irekiak izaten dira antolatzen diren ekitaldiak, kontzertuak eta afariak barne.

Uda garaian izaten dira bilkura gehienak Sugoi Goierrikoak asko mugitzen dira. “Bilkura askotara joaten gara: Castellon, Galizia, uztaillean beste bilkura handi bat, Algarven izango da, Valladolideko Pingüinos, Landatan, Aranda de Dueñon...”. Egunpasak ere egiten dituzte, motorrak ematen dizkien sentipenak gozatuz. “Soriara, Errioxako bodega batera, kostalde...”. Jose Luis Amatriain bera, iazko oporretan, Algarveraino, Portugal hegokialderaino, joan zen.

Bigarren mailako errepideak aukeratzen saiatzen dira beraien bidaietarako: “lasaiagoak eta politagoak dira. Beste askatasun bat daukazu”.

300 motorzaletik gora hartzeko guztia prest dute Ordizian. Iaz, Lazkaon egin zuten lehenengo bilkura eta orduan 170 motorzalek eman zuten izena. “Oso polita izaten da motorzaleak iristen ikustea: banaka, bihirunaka, taldeka... etortzen dira”. Astebururako prestatu duten egitaraua, ondoko koadroan duzue.

Motor familia

Motorzaleen artean dagoen harremana handia da eta elkarte ugartan elkartzen dira. “Harreman handia eta ona dago motorzaleen artean. Bidean, motorzaleak elkar agurtzen gara beti. Motorzaleren batek arazoren bat edo istripuren bat iza-



Asteburuko egitaraua

Beti-Alai pilotalekuan prestatu dute lo lekua, bertako azpiegitura, dutsak, komunak aprobetxatuz. Otorduak eta kontzertuak, Plaza Nagusian izango dira. “Ordizian, lur-sail bateko nagusiarekin hitz eginda geunden kanping-a jartzeko, baina azkenean pilotaleku barruan jarriko dugu kanping-a. Dutsak eta komunak badaude eta aprobetxatu egingo dugu azpiegitura. Eguraldi txarra egiten baldin badu ere, jendea gusturago egoten da barruan. Leku batzuetan, futbol-zelaietan jartzen da kanping-a”.

Larunbata izango da egunik nagusia. Arratsaldeko 4etan adibidez, motor jokoak izango dira. “Ariketa edo joko ezberdinak egingo dituzte: puntu batetik besteraino, nor polikiago joan, hankak lurrean jarri gabe; garagardo upelak mugituz lasterketa; saltxitxaren jokoak: saltxitxak zintzilik jarri, motorrarekin azpitik pasatu eta atzean doanak saltxitxa jan behar du...”, adierazi du Amatriainek. Jolasaren ondoren, Beasaindik eta Lazkao-tik barrena, ibilalditxoak egingo dute, inguruko herrietara, motor giroa ere irits dadin. 20:30ean, afari herrikoia izango da eta gauean azkenik, kontzertua izango da: Beasaingo Sin Red taldea eta Los Rebeldes.

Igandean, beste itzuli bat egingo dute, Goierri berrera. Zerainen geldituko dira hamaiketakoak egiten.

nez gero, gelditu egiten gara, autoetan ez bezala”, zehaztu du Amatriainek.

Taldean joatea gustatzen zaie motorzaleei. “Taldean joatea politagoa da bakarrik joatea baino. Bakarrik joanez gero, azkarrago joaten da, bakoitza bere munduan. Taldean joanda, ardura gehiago izaten da, aurrean doanak markatzen du abia-

dura, denak joan daitezkeen abiaduran joatea izaten baita helburua. Abiadura kontrolatu egin behar da. Taldean ibiltzen garenean, 120-130 km/h ibiltzen gara gehienez. Bakarrik doana, ahal denean joaten da. Baina gaur egun kontuz ibili beharra dago, kontrolak eta radarrak direla-eta”, zehaztu du.

Sugoi Goierri

Motorra zaletasun dutenak, Goierri, Sugoi Goierri eta The Cherris elkarteetan elkartzen dira. Sugoi Goierri adibidez, 45 kide dira. “Gure artean harreman handia dago. Lagun talde bat gara”, aipatu du Amatriainek. 29 urtetik 57 urtera bitarteko kideek osatzen dute Sugoi Goierri. Donostiakoren bat edo beste izan ezik, elkarte-kideak goierritarrak dira.

Elkartean sartzeko baldintzak honakoak dira: 18 urte eduki eta motorra edukitzea, beste bazkide baten bidez sartzeko da.

Duela 3-4 urte sortu zen Sugoi Goierri. “Lehenengo Goierri Motor Kluba sortu zen, batez ere, autoen munduko zaleak biltzen zituen. Duela 3-4 urte, bereiztea erabaki genuen, nahiz eta harremana mantentzen den. Lokala ere, Beasaingo Antzizar kiroldegian, elkarrekin daukagu”.

Gomendioak

Motor ezberdinak dituzte elkartekideek, baina gehienak Custom-ak omen dira. “Beste elkarte batzuk badaude motor mota batena baina hemen ez dago mugarik”, zehaztu du.

Hobby garesti samarra onartzen du Amatriainek. “Garestiena motorra erostea da baina gaur egun bigarren eskuko motor bat eros daiteke prezio on batean. Mundu horretan sartzeko aukera ona da”.

Gazteei eta motorraren munduan sartzeko nahia dutenei gomendio bat eman nahi die Amatriainek. “Batez ere gazteentzat gomendioa: motorra erosi aurretik, esperientzia daukatenekin harremanetan jartzeko eta elkartzeko, motorraren mundura inguratzeko. Niri ere berdina gertatu zitzaidan. Honda Cero 600 bat erosi nuen eta beldurra hartu nion motorrari. Saldu egin nuen”.



*Piezaz pieza motorra eraiki du
Ander Telleriak.
Emailtzak sariak ere eman dizkio beasaindarrari.*

Ander Telleria eta Pinto **Ametsetako motor sortzaileak**

Estatu Espainiarreko bi chopper motorrik oneneta-rikoak, Goierrin daude, zehazki, Beasainen eta Ordizian. Beasaingo Ander Telleriak eta Ordiziako Pintok, beraien buruan diseinatutako motorrak eraikitzen dituzte, motorra, sortzailearen gustu eta beharretara egokituz. Piezaz pieza, garajea kontaezinezko orduak eta orduak sartuz.

Seriean egiten diren motorra erosi, piezaz pieza hustu, biluztu, eta pieza berriak erosituz edo eginez, osatzen dute motorraren puzzlea. Motor pertsonalizatuak dira, munduan bakar-rak. "Motorraren transformazioak egiten ditugu. Gero legalizatu egin behar dira, parametro teknikoak aldatu egiten dira eta", argitu du Ander Telleriak. Ordizian Motorzaleen bilkkura, ikusgai izango dira Telleriaren eta Pintoren harribitxiak.

Prozesua

Ezker aldeko argazkietan Ander Telleriak, bere Zahir chopperra lortzeko egindako prozesua ikus daiteke. Sei hilabetean egin du guztia. Honela laburbildu digu prozesua: "Motorraren barra moztu eta berria egin nuen lehenengo; direkzioa aurrerago eta altuago jarri,

urkila luzeagoa sartzeko. Atzeko gurgila askoz ere zabalagoa denez, transmisioa kanpora ateratzen zaio; tapa guztiak kromatu... izugarrizko lana dauka". Pieza asko Anderrek berak eging-dakoak. "Eskulekua edo manillarra adibidez nik egin dut, kable guztiak barrutik sartu ditut, kableak ez ikus-teko". Diru ugari gastatu beasaindarrak kapritxoko motorra egiteko. Motorra, normalean, Harley David-sona izaten da.

Zahirren aurretik, beste bat ere moldatu zuen. "Duela hiru urte beste motor bat zen: motorra japoniarrak zen eta oso transformazio txikia egin zitekeen. Dirua ere askoz ere gutxiago gastatu nuen", zehaztu du.

Piezak katalogoetatik erosten dituzte, edo beraiek egin ere egiten dituzte. Ideiak, aldizkari espezializatuetatik hartzen dituzte. Aipatutako aldizkari espezializatu bateko ('Biker Zone'), azalean bi goierritarren motorrak atera dira.

Pinto Ander baino lehenago hasi zen chopperra egiten, "baina nik lehenago bukatu nuen. Nik transformazioa egin behar nuen, baina Pintok, motor guztia, berria egin zuen. Bi urte behar izan ditu". Anderrek sa-

Anderren motorrak, 2 metro eta 80 zentimetro ditu luzeran; Pintorenak, 3 metro eta 4 zentimetro.

ri ugari lortu ditu, eta Pinto dagoeneko hasia da lortzen.

Anderren motorrak daukan meriturik handiena da, txaxis guztia kromatuta edukitzea da. “Kromoa burdinak, metalak bakarrik onartzen du; poro bat edo zulo bat ateratzen bada, horrek ez du kromorik hartuko, eta ezin da karrozeroko pastarekin estali; burdina garbi-garbia egon behar du, ondo leundua. Sei-zazpi aldiz soldatu nuen, dena garbi-garbi utzi arte. Izugarritzko lana da. Horrelako txaxis gutxi ikusten dira”.

Pintura ere berezia dauka Zahir motorrak. Laranja eta zilar kolorekoa. “Su garrak eta loreak, azkenaldian gertatu diren hondamendi naturalen protesten adierazgarria”, esan du Ander Telleriak.

Lehiaketetan, lan gehiago zeinek daukan, originaltasuna, piezak norberak egindakoak diren ala ez... hartzen dituzte kontuan. “Hotsa ere berezia izaten dute chopperrek baina showetan hori ez da baloratzen”, azpimarratu du beasaindarrak.

Behin motorra egindakoa, errepidean ibiltzea izaten da helburua. Polikiago eta motelago ibiltzeko motorrak dira. “Dena den nik gehiena, egiten gozatzen dut”, aitortu du beasaindarrak. Hirugarren proiektua ere buruan darabilki, Pintok ere bai. Berria egiten hasteko, beasaindarrak, Zahir saltzeko asmoa dauka. “Jende kapritxosoak erosten ditu horrelako motorrak”.

Era horretako motorrak kalean utzita ez dira lasai izaten: “kalean aparkatuta utzerakoan, begi bat motorrean eta bestea garagardotan. Jendea ezer esan gabe igo egiten da argazkiak ateratzeko. Ez dira konturatzen, botaz gero, zer gerta litekeen”. Motorra inori uzten dion jakin nahi izan dugu: “eskatu baino lehen badakite erantzuna, ezetz. Erama-



Bi urte behar izan ditu Ordiziako Pintok, bere motorra eraikitzeko. Oraindik era homologatu baldin badauka ere, bere helburua, errepidean ibiltzeko moduan jartzea da.

teko ez da erraza eta zerbait gertatzen baldin bazaio, nahiago dut niri gertatzea eta ez beste bati. Jendea normalean ez da ausartzen”, gaineratu digu beasaindarrak.

Zaletasuna

Shadow 600 motorra erosi zuenean sortu zitzaion Ander Telleriari, bere neurriera eta gustuetara egokitzeko gogo. “Bigarren eskuko Shadow 600 erosi nuen. Motorraren eta nire gorputza-

ren desproporzioa ez ikusteko, erakusleihoetatik alde egiten nuen. Planteamentua honakoa izan zen: hurrengo motorra, ibili ala ez ibili, handia izan dadila. Volusia Homenade sortu nuen”.

2004. urtean, Bilboko Moto Show egin zenean murgildu zen Pinto ordiziarra, chopperraren mundu honetan. “Orduan ikusi nuen ‘made in America’ ziruditen chopperrak, Espainian eginak zirela”. Burua martxan jarri eta argi zeukan

Pintok nahi zuena: “serieko motorrak zirenak ikusteari utzi eta nire motorra nolakoa izango ote litzatekeen pentsatzen hasi nintzen. Erakustaldietarako, lehiaketetarako motorra izan behar zuen, baina ibili zedila, homologazioa lortuta”.

Estatu Batuetatik

Ander Telleriak adierazi digunez, “Chopper-ak, Estatu Batuetatik iritsi dira. Hona, beti bezala, berandu iristen da. Espainia mailan badaude batzuk, Zaragozan, Marbellan, Burgosen, Galizian, Bartzelonan beste pare bat... Harrigarriena da, Euskadin, eta zehazki Goierri, era honetako bi motor izatea, punta-puntakoak gainera. Txapelketetara joan eta sariak irabazten ditugu. Jendeak ez du baloratzen: Euskadin Biker Zona aldizkari-ko bi portada ateratzea asko da eta Goierri ateratzea askoz ere gehiago”.

Sariak

Ander Telleriak Zahir chopperraren zikloa amaitu dela us-te du, inguruko lehiaketetan parte hartu baitu dagoneko. Emaiza onak lortu ditu gainera: Castellongoa, Lunática saria; Vieux Boucau-koa, Tolosakoa, Orensekoa, Mirandakoa...

Pintok beranduago bukatu bere artelana eta oraitsu hasi da lehiaketetan parte hartzen. Benicassingoa, Zaragozakoa, Castellongoa eta Orensekoa irabazi ditu momentuz. Datorren hilabeteetan, Sestaon, Faron (Portugal) aurkeztuko da.

Mikel Aramendiren tesia

Andres Urdaneta: XVI. mendeko euskaldun ibiltari baten hizkeraz

Itsasondoko Mikel Aramendi, kazetariak, nazioarteko gaietan adituak, hitzaldia eskaini zuen joan zen maiatzaren 17an, Andres Urdanetaren urteurrenaren inguruan antolatu diren solasaldien barnean. Mikel Aramendiren tesiaren arabera, Andres Urdaneta, euskal hiztuna zen eta bere idatziak gaztelera idatziak bazen ere, euskararen kutsadura nabarmena da, euskarakadaz beteak. “Euskal hiztuna zen eta beti mantendu zuen euskara. Urdanetaren idatziak oso zailak dira ulertzeko, euskaraz ez dakienarentzat. Nire tesia da Urdaneta euskalduna zela nahiz eta Urdanetak ez zuen euskaraz zuzenki idatzi hitz bat bera ere, gaur egun ezagutzen dugunetik. Egiak, oraintsu, bilaketa honi ekin diogunean, beste idatzi batzuk agertu dira eta ez litzateke harritzekoa izango, egunen batean, zer bait agertzea”, dio Aramendik.

Idazle oparoa, pertsona ixilkoia

Andres Urdanetak asko idatzi zuen. Bidaien kontakizunak, txostenak eta gutun ofizialak gehien-gehienak. “Kontatuta daukagunaren arabera, Urdanetaren idatzi guztiek, milioi erdi bat karaktere baino gehiago hartzen dituzte. Gaur egungo liburu potolo samar bat ba-



Mikel Aramendi:

“Urdaneta oso preziagarria egiten da, garaiko gaztelera ezagutzeko, garaiko euskara sumatzeko eta bien arteko zubiak norainokoak eta nondik norakoak izan daitezkeen sumatzen hasteko”.

da. Horietako erdiak, Loaysiren kontakizun luzean biltzen dira, 1538 inguruan idatzi zuen kontakizun luze horretan”.

Urdanetaren idatzi pertsonal pribaturik ez da aurkitu orain artean behintzat. “Askok idatzi zuen pertsona izan arren, bere bizibideaz oso gutxi dakigu. Eta gainera dakigun gutxi horren zatirik handiena ez dakigu berari esker, beste batzuei esker baizik. Zirkunstantzia batzuetan bere adina, bere familiaren tasunak, eta horrelako gorabeherak ematen dizkigute hirugarren batzuk. Urdanetak ez du sekula santa bere buruaz hitz egiten. Esate baterako, ida-

tzi bakar bat egongo litzateke, eta ez gainera berea, Urdanetak Ordiziakoa dela esaten duena. Dudarik gabe, pertsona ixilkoia oso erreserbatua zela esango genuke, bere buruaz oso gutxi hitz egiten zuena. Alde horretatik bilaketa oso konplexua da. Ixiltasun horren ondorioetarik bat da, bere ama-hizkuntzaz argibiderik ez daukagula. Bistan da Urdanetak gaztelera badakiela, zeren eta bere idatzi guztiak gaztelera deienezakeen zerbaitetan idatzita daude. Baina horrez gain, malayoa ere bazekiela. Eta hori zeharbidez jakinarazten digu. Ez du sekula oso garbi esan eta ez du oso

Urdanetaren idatziak oso zailak dira ulertzeko, euskaraz ez dakienarentzat.

garbi esaten euskararik dakienik. Gauza asko uzten ditu esateke, normala denez, zeren eta bera idazten ari dena dokumentu ofizialak dira”.

Zeharbidezko euskalduntasun frogak edo aztarinak asko dira, “hain sakonak eta hain zabalak, kontrakoa esatea kosta egingo da. Biografoak ez dira auzartu Urdanetaren ama-hizkuntza gaztelera zenik esaten”, azpimarratu du itsasondorak. “Beste aztarna edo zeharkako frogantza bat dago: Gonzalo Fernández de Oviedok Urdaneta aurkeztetakoan, “vizcaíno (guipuzcoano mejor diciendo)” esaten du. Espainiako XVI. mendeko historialari garrantzitsuenen da. Garai hartako ‘vizcaino’ adjetiboa, eduki linguistikoa nabarmena dauka. Gonzalo Fernández de Oviedok pertsonalki ezagutu zuen Urdaneta”, gaineratu du.

Olagi Urte guztian zabalik
Sagardotegia Sagardotegiko menua
Jatetxea Karta
© 943 88 77 26 ALTZAGA

San Inazio, 5
20200 BEASAIN
Telf: 943 16 21 92
Fax: 943 88 36 33

GERTU
Inmobiliaria
www.inmogertu.com

Euskarakadak

“Euskarakada hitza erabiltzen ari naiz, baina euskarada kontzeptuaren erlatibitateaz azpimarratu nahi nuke. Zeren eta, guzti honetan nabarmentzen da, euskararen eta Ertaroko gaztelaren arteko kidesuna, elkar permeabilitatea askoz ere handiagoa zen eta gaur egungo euskarazko esapide jatorrak ditugunak, Erdi Aroko gaztelaren aurkitzen dira. Kontua da, euskara ama ala alaba da?”

Alde horretatik, Urdanetaren idatziak oso garrantzitsuak dira euskararen historia idatzian. “XVI-XVII. mendeko zerbait azaltzen zaigunean, demagun orain txu Lazarragaren idatziak agertu direnean eta, denok kinka batean ipini gara, gure hizkuntza historiako oso garrantzitsua delako. XVI. mendeko euskara edo aurreragokoa nola zen imajinatu egin behar dugu. Eta imajinazio horretan, noski, garrantzia handia izaten du beste hizkuntza batzuetan idatzita daudenak, euskaldunen eskutik edo euskararen kutsua dutenak edo euskarazko hitzak jasotzen dituztenak. Gure hizkuntzaren historia zaharra horrelaxe, oso apurka, oso lan txiki-ekin egin beharreko horma bat da, eta beharbada Urdanetaren idatziak interpretatzea, irizpide batzuk eman dizkiote, garai hartako euskara nola izan zitekeen”.

Aramendiren ustez, Urdanetak ez zekien latinik. Hitzak asmatu behar dituen, modu nahiko xebearean egiten du, baina inoiz ez du jotzen latinezko erro-
etara.



Hainbat adibide

Mikel Aramendiren esanetan, Urdanetaren euskalduntasunaren “frogantzarik handienak, Urdanetaren idatzien azterketatik datoz. Gutxi dira idatzi horietan, derrigor euskaldun baten ahotik sortutakoak direla esan daitekeenak, baina guztiak hartuta ez dago beste erremediorik, euskaldun batek idatziak direla esatea baino”.

Puercos monteses = basurdea.

Tubiese cargo = kargu egon nadin.

Dar prresa = presa sartu.

Rruciada = zaparrada.

Oxeamos = uxatu genituen.

Que primero = lehen baino

Demas que es bueno = ona izateaz gain.

De sesenta y tantas legoas arriba = hirurogei legoatik gora.

Estoy maravillado = harrituta nago.

Andaba la guerra muy caliente = oso bero, asaldatura, hasarretuta.

El otro día segundo = biharamunean.

Luego en la ora = orduantxe

Mar larga = itsaso zabala.

Biento prospero = eguraldi ona.

De trabes = trabeska.

Los bendabales = mendebala.

“Euskarazko itsaso zabala, mar largaren ama ala alaba da? Garbi dagoena da, elkarren kalkoak direla. Urdanetak etengabe erabiltzen du ‘primero’ lehen bezala. Gaztelara ama-hizkuntzat duen batek ez ditu konkordantzia arazoak izaten: las peces”.

“Eta askotan, euskarazko esapide bati hitz elkar-
goa eginez soluzionatzen du. Horrek aditzera ematen didana da, latinik ez zekie-
la. Edonola, latina jakiteko-
tan, jakingo zuen gero, fraile sartu zenean. Bere bizi-
tzako azken partean hiz-
kuntzekin zer egin zuen,
hori ere ikustekoa izango li-
tzateke. 28 urterekin Mexi-
kora joan eta 25 urte egin
zituen. Azkeneko 10 urte
paseak, fraile agustinar be-
zala pasatzen ditu. Hor du-
darik gabe, latin pixka bat
ikasi beharko zuen”, zehaz-
tu du itsasondorarak.

Beka

Urdanetaren idatzi asko az-
tertu dira baina dokumentu
ezezagunak egotea ez litz-
ateke batere harritzekoa Ara-
mendirentzat. “Urdanetari
kendutako paperak Portu-
galen daude. Baina irakur-
tzea ez da nahikoa. Ordu
asko galdu behar dira zer-
bait ulertzen hasteko. Eta
soltura pixka batekin eta
egindako lanari etekina ate-
raz, ordu asko behar dira.
Nik uste dut urteurrenaren
ekarpen horietariko bat
izan behar dela, eskura di-
tugun dokumentuak, fida-
garriki transkribatuta gera
daitezen, mundu guztiaren
eskura eta hortik aurrera
bakoitzak bere esparruan
ahal duena edo nahi duena
egin dezala. Dokumentu
berrien bilaketa, artxibate-
gian, Valladoliden, Portuga-
len... itsu-mutsuko bilaketa
egin beharra dago”.

Artxibategietan lan asko
dago egiteko. Hori dela eta,
dokumentu horiek aztertze-
ko beka bat aterako du Or-
diziako Udalak, Casa Asia-
ren babesean.

biok z e r b i t z u a k Tel 943 88 44 00 Faxa 943 80 51 27 www.biokzerbitzuak.com Ordizia Goierri, 12	kudeaketa fiskala kontablea merkatala laborala
--	---

LEIAR 	KRISTALDEGIA ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua 2/g ☎ 943 88 88 24 BILTEGIA: Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70 BEASAIN
------------------	--



Limosnako arkumea

Bazan garai batean urtero frailei arkume bana eramateko ohitura. "Limosnako arkumea" deitzen zitzaion. Korpus eguna izaten zan hortako seiñalatua. Urbia eta inguruko artzai guztiak han elkartzen giñan. Egun horri buruz 1965ean jarritako bertsoak dira hauek.

1.- Arantzazura eman dira gaur artzai askoren pausoak limosnetako harturik danok arkume bana osoak, gu bezelaxe etortzen ziran gure lengo gurasoak; Korpus egun hau gogoan dala jartzera noa bertsoak.

2.- Gaur bildu gera bizi geranok batean eta bestean, praileak ondo hartu gaituzte guztiok, nere ustean. Ohitura honek segitutzen du auskalo zenbat urtean, nik desio det: jarrai dezala artzaiak geran artean.

3.- Etorri gera gipuzkoarrak baita're Arabakoak, argazki baten hartu gaituzte gaur hemen bildutakoak, gizen askorik ez da egongo, gehientsuenak flakoak, ez egun danak izan balira gaurkoa bezelakoak.

4.- Hamar t'erditan entzuna degu danok meza nagusia, zenbat kantore, hizlari t'abar hor bazan zer ikusia Hor bazegoen nola ibili nortzuk adierazia,

Frantziskanoek eliz lanetan badute beren grazia.

5.- Meza nagusia entzutea izan degu gogokoa, prozesioa ere egin da ikusteko modukoa baina sermoia gogor samarra iruditu zaigu gaurkoa, bere burua bezela gutxik maite du lagunurkoa.

6.- Bazkaritako ordua gendun jarri ordu batean, gure Aita Lasa zai genedukan hor sarrerako atean mai ederrera hartu gaituzte barrura eramatean, jan-edanetik bai opa ere gutzizko borondatean.

7.- Bazkal aurretik errezatuta eseritzen gera maian, lagun-zar danak maitetasunez alkarri hitzegin naian, bazkal ondoren ederki askok jan da edan degun garaian bertsoak ere kanta ditugu gure euskera alaian.

8.- Ondorenean erretratoak danori ateratzea, kostea zaigu geren tokitan behar bezela jartzea, bati aurrera esaten zigun besteai, berriz, atzea; orain badegu ondo atera geraden esperantzea.

9.- Gaurko eguna pasatu degu Frantziskanoen tartean,

gure Aita Lasa buru dalarik artzai danakin batean, eta azkenik agurtu degu hitz hauetxek esatean: "bagoaz eta oraingoz agur berriz ikusi artean".

10.- Artzaiak asko ari gerade bakantzen edo urritzen, lendik oraina zer diferentzi ez dago samur neurritzen, geroz gutxiago izateakin ez naiz batere arritzen: gaudenak ere Jainkoak daki bakoitza nola gabiltzen!

11.- Asko zergatik gutxitu geran hau're esango det garbi: ia basoak hartu baititu gara leku ta belardi. Laister gerala pentsatzen nago ez arkume ta ez ardi, Arantzazuko Amabirjiña, zuk egin zaiguzu argi.

12.- Gaur ez ditugu garai batean bezin paraje lasaiak, toki ederrak gorde ditezen basurde eta azaiak; oraindik ere gustatzen dira arkume eta gaztaiak. ia bestela falta haundirik ez du egiten artzaiak.

13.- Gauden banakak gaizki gabiltza baztarrak ezin zaindurik, bildurgarrizko haize hotzetan ederki asko zaildurik. Gaur pena danak aztu zaizkigu Arantzazura bildurik, baina denbora gutxi dala hau, ez daukat beste bildurrik.

14.- Guztion Ama Arantzazun da hau danok ondo dakigu, ta berak ere jakin lezake nola gabiltzan gaizki gu; lenago zabal ziran tokiak estutu egin zaizkigu; bi egunean bizi behar da badegu naiko kastigu.

15.- Amabirjiña, zure ondoan bildu gera Arantzazun, nere esana aintzakotzat ia hartutzen didazun, ondo dakigu zuk lendik nola artzaiak maite dituzun, orain munduan gaudenoi ere ea laguntzen diguzun.

*Florentino Goiburu,
'Kantu Kontari' liburutik.*

Euskara ikasteko biderik gertukoena, erosoena eta errazena

etxean bezala

25 urte
43 zentro
Maita guztiak
Ordutegi pertsonalizatua
Bekak, HABEko
diplomak



Cristina López (Elgoibar), Oscar Tena (Tolosa), Leticia Vafara (Leintz)
Juan Andrés Rodríguez (Azpeitia), Mari Carmen Barreiro (Pasaia), José Valdivielso (Legazpia), Jesusa Esnaola (Lasarte).

2007ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZEA,
ALFABETATZEA eta EGA.

Ekainaren 27tik uztailaren 24ra
(08:00-13:00)

Irailaren 3tik 28ra,
(19:00-21:00, EGA prestatzeko)

Matrikulatzeko epea

Ekainaren 4tik 22ra

Bulego ordutegia

Goizez: 09:00-12:00
Arratsaldez: 14:00-18:00



www.udaleuskaltegiak.net

BEASAINGO UDAL EUSKALTEGIA

San Martin plaza z/g, kultur etxea. 20200 BEASAIN
Posta-E: zuzendaritza@beasain.net T 943 082 100

Nazaret zentroa

www.nazaretzentroa.com - Aldakoenia, 36 - B° Egia
20012 DONOSTIA - Tel. 943 326666 - Fax. 943 326384

Batxilergoa

- 1 Giza eta Gizarte Zientziak
- 2 Natura eta Osasun Zientziak

Ikasgaiak euskaraz,
erdaraz eta ingelesez
ematen dira



Irakaskuntza ertain
eta lanbiderakoak
Enseñanzas medias
y profesionales

Lanbide Zikloak

Goi Mailako Zikloak

- 1 Administrazioa eta Finantzak
- 2 Informatika
- 3 Marketina
- 4 Nazioarteko Merkataritza
- 5 Idazkaritza

Ziklo Ertainak

- 1 Administrazio-Kudeaketa

 kutxa, lankidetzako gizarte ekintza

Legorreta

Ekainak 9: Corpus Christi eguna

Festak pasatu zaharrak ez badira ere, festa giroa izango dute ekainaren 9an, Corpus Christi eguna ospatzeko. Jarraian duzue egitaraua:

09:30ean: Diana Legorretako Musika Eskolako ikasle-en eskutik.

10:30ean: Haurrentzako Herri Krosa.

11:30ean: Helduentzako Herri Krosa.

13:00etan: Krosaren sari banaketa.

18:00etan: XVIII. Ardo dastatze txapelketa.

18:30ean: Udalak arda eskainiko du herritar eta bisitari guztientzat. Guzti hau 'Iraunkorrek' txarangak alaitua.

19:30ean: Usariozko Meriendak Plazan, 'Iraunkorrek' txarangak alaitua.

Ondoren goizaldera arte, kalejira eta dantza saioa 'Iraunkorrek' txarangarekin.

Ataun

Otso-festa

Ekainak 15, ostirala:

22:00etan: Herri antzokian, Antzerkia Txalo Produzioak-en eskutik: 'Bota Patsa'. Iker Galarza eta Joseba Usabiaga aktoreak dira protagonistak. Sarrera dohainik.

Ekainak 16, larunbata:

Auzoeta kiroldegian, txapelketetako finalak eta sari ematea.

Ekainak 21, osteguna:

18:00etan: Herri Antzokian, 'Otso festa 07' jaialdia: Lazkao Txiki Musika Eskola eta Otsoak dantza taldearen eskutik.



Segura

Jailetako lehen asteburuko egitaraua

Ekainak 15, ostirala:

19:00etan: Futbito txapelketako final aurrekoak, Baratzte pilotaleku ondoan.

23:00etan: Dantzaldia Gaubela taldearekin, plazan, tabernariet antolatuta.

Ekainak 16, larunbata:

10:00etatik 11:30era eta 18:00etatik 19:00etara: Gipuzkoako bola eta toka txapelketa, bolatokian.

18:00etan: Gipuzkoako bola eta toka txapelketa.

Ondoren: Haurrentzako jokoak, Gazte Asanbladak antolatuta.

23:00etan: Dantzaldia Gaubela taldearekin, plazan, tabernariet antolatuta.

Ekainak 17, igandea:

10:00etan: Gazte mailako San Joan txirrindulari proba.

18:00etan: 31. Euskal Herriko Dantza txapelketako finala, Baratzte pilotalekuan.

Afal aurretik: Herriko trikitilarien eta txistulari taldearen emanaldia, plazan.

IÑAKI ARIN Aseguruak



☎ 943 888 702

Oriako Pasealekua, 20

B E A S A I N

- ✕ Jabekideen komunitatea osatzea
- ✕ Komunitateen kontabilitatea
- ✕ Akten idazketa
- ✕ Aurrekontuen eskaera
- ✕ Aholkularitza legala
- ✕ e.a.



Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA

Tel.: 943 087 486

Ordizia

Saskibaloiko entrenatzaile izateko ikastaroa

Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioak, OKE Saskibaloiko Elkartearen eta Ordiziako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntzarekin, 'Saskibaloiko hastapena', saskibaloiko entrenatzaile izateko ikastaroa izango da Ordizian, Barrena Kultur Etxean, uztailaren 9tik 13ra eta uztailaren 16tik 20ra. Guztira 45 ordu. Goizean izango da ikastaroa, 10:00etatik 13:30etara. Euskaraz eskainiko da ikastaroa.

Honoko gaiak landuko dira: prestakuntza teknikoaren arloa; banakako teknika taktika, joko arauak, taldeen gidaritza, didaktika arloa; metodologia; zientzia aplikatuen arloa; osasuna eta garapen fisikoa; oinarri psikologikoak; garapen profesionalaren arloa; legeria, kudeaketa eta inguru profesionala. Ikastaroa gainditzeak PDJ epaile aritzeko aukera ematen du.

Ikastaroan parte hartzeko baldintza, 16 urte beteta izatea da. Matrikula, 140 euro kostatuko da. Plaza kopurua mugatua da eta izena emateko hurrenkera zorrotz errespetatuko da. Izen-emate orria aurkeztu behar da, argazki batekin, NAREN kopiarekin eta banketxeko ordainagiriarekin batera, ekainaren 18a baino lehen, Gipuzkoako Saskibaloiko Federazioan. KUTXAn sartu behar da dirua. Kontu zenbakia.: 2101-0200-41-000680810-9; dirua sartzen duen pertsonaren izena adierazi behar da.



Ordizia

Ekainaren 10ean erromeria Oiangun

Oiangun Parkea Bizirik Natur Elkartek, erromeria antolatuko du ekainaren 10ean, Oiangun bertan. Ondoko egitaraua prestatu dute.

11:00etan: Jolas herrikoikiak, Gaztetxeak antolatuta.

12:00etan: Txistulariak.

12:30etan: Prentsaurrekia eta sagardoa kupeletik.

13:00etan: Bertsolariak eta trikitixa.

14:00etan: Bazkaria (norberak berea eraman dezala).

Arratsaldean: Trikitixa.



izal
IMAZ eta CONTRERAS
PINTURA eta PAPERGINTZA

☎ 943 187 049
☎ 943 187 045
Ondramuño
baserria
IDIAZABAL

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Harpidetza txartela

Urteko kuotak: Egin ☒ aukeratutako kaxan

☐ **Goierri** 25 euro

☐ **Goierri**

+

☐ **hitza** 67,5 euro

☐ **hitza** 62,5 euro

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefono zenbakiak:..... NAN:.....

Kontu zenbakia(20 digitu):.....

Bidali txartela
helbide honetara:
Goierritarra
Urbalde plaza 7 behea
Beasain

Harpidedunen
arreta zenbakia:
902 82 02 01

ETXEBIZITZAK

errentan hartu

Pisu bila nabil, alokairuan.
943180119.

errentan eman

Jakan, apartamentua, igerilekuarekin, alokatzen da, uztail eta abuztuan. 676615361.

Errioxako kanping batean karabana alokatzen da. Guztiz erosoa. 669706870.

Apartamentua alokatzen dut Pinedan, uztailan eta abuztuko lehen hamabostaldian.
943027991.

salgai

Ataun. 60 m², berritua, prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA.

Ataunen, berritzeko etxe eder bat aukera ezberdinekin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Altsasun etxebizitza berria salgai. 3 logela, egongela, sukalde hornitua, 3 komun eta 14 metroko trastelekuak. 37.000.000 pezeta. 665725265.

Beasain. Ezkiaga etorbidean, 103 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, ganbara eta garajea. 661079053.

Beasain. Errekarte kalean, 65 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela. Eguzkitsua. Prezio interesgarria. LAZKAO INMOBILIARIA.

Beasainen, kanpo aldera ematen duen 85 m²ko etxebizitza salgai. Berogailua. Garajea. 248.000 euro. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain. Erdigunean. Eraikuntza berriko apartamentua, garaje handiarekin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Beasain. Erdigunean. 82m²ko etxebizitza. Eguzkitsua, igogailua, trasteleku handiarekin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Idiazabal. Eraikuntza berria, 3 logelako azken etxebizitza salgai. 47.000.000. LAZKAO INMOBILIARIA.

Idiazabalen 115 m²ko pisua salgai. Erabat berritua. Berogailua eta igogailua. Garaje eta ganbarakin. INMO F3 943164936 - 629417171.

Lazkao. San Jose kalean, 60 m²ko etxebizitza salgai. 3 logela. Berritua. LAZKAO INMOBILIARIA.

Lazkao. Laister eraikuntza berriak. Apuntatu zaitetz. LAZKAO INMOBILIARIA.

Legorreta. Etxea salgai. 2 logela, egongela, bainugela, sukaldea eta balkoia. Erabat egokitu. 679193462.

Ormaiztegi. Ibili gabeko 6 urteko etxea salgai. 2 logela (bat jarrita), egongela, bainugela, sukaldea (jarrita) terraza eta lorategia. 695780056.

logela

Legazpin, Itxaropen auzoan, logela bat alokatzen da pertsona batentzat; emakumezkoa nahiago. 649921948.

GARAJEAK

errentan eman

Dulce Maria Loinaz (Beasain) etxaldean 27 m²ko garajea alokatzen da. 677680390.

Beasaingo anbulatorio berrian garajea alokatzen da. 619750318.

salgai

Legorreta. Neurri ezberdinetako garajeak. LAZKAO INMOBILIARIA.

BESTELAKOAK

salgai

Burstener karabana salgai. Bi ohea handi eta 80-ko litera. Komuna eta bi abanzerekin. Egoera oso onean. 3.700 euro. 665705337.

Esolatarako akazi egurra salgai. Luzera 2 metro. 609411811.

Egongelarako altzariak salgai, oso merke. 943187488.

Arraindegi, harategi etaberritarako baskula salgai. 15 kilora arte. 615709493

Knaus karabana salgai, 2005. urtekoa. 3 anbertetako. Extra guztiekin. 620396947.

Arkupe

ETXERAKO OIHAL ETA OSAGIAK

J. M. Barandiaran plaza - Tel.: 943 88 00 84 - ORDIZIA

Ikaskide
irakaskuntza zerbitzuak

Joan Iturralde, 5
Beasain

943 160 120
www.ikaskide.net

ESKOLA LAGUNTZA
INFORMATIKA
INGELERA
IKASKETA TEKNIKAK
UNIBERTSITATE-MAILA

1

ANZIZAR, S. A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**



Beasain-Zumarraga, 46 Km.a **BEASAIN**

www.anzizar.com ☎ 943 88 17 00 Faxa.: 943 88 48

Pottoka
K A F E T E G I A

- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitaratekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

☎ 943 16 03 04

LANA

eskaerak

Zerbitzaria behar da Beasaingo Arrano tabernan. 943887447.

Idiazabal inguruko pertsona bat behar da, astean 6 orduko lana burutzeko. 629835340.

Tabernan lan egiteko zerbitzaria behar da Beasainen. 676048552.

Beasaingo eta Ordiziako okindegi baterako pertsona bat behar da. 943885500.

Ingeniari teknikoa edo apa-rejadorea behar da. Euskalduna eta lan arriskuen prebentzioan goi mailako teknikaria. teknika@segurtasuna.net

Umeak zaintzeko pertsona bat behar du Zuarragan. 655718192.

Ileapaindegi batean lan egiteko pertsona bat behar da. Bidali kurrikuluma 140 posta kutxara (Ordizia).

Burdindegi lantegi batean lan egiteko pertsona bat behar da.. 943721160.

Beasainen neska euskalduna behar da umeak zaintzeko.

Arratsalde, 16:00etatik 20:00etara. 650204836.

Neska euskalduna behar da Beasaingo taberna baterako. 678014223.

Ileapaindegi baterako esperimentziadun ileapaintzailea behar da. 607815274.

eskaintzak

30 urteko, paperik gabeko gizona etorkin hegoamerikarra eskaintzen da ostalaritzan, baserrietan, komertzioetan... lan egiteko. 619821216.

Lan ezberdinetarako, (umeak zaintzeko, garbiketa lanetarako...) emakumea eskaintzen da. Egun osoan zehar lan egiteko aukera. 606722876.

Neska eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, garbiketa lanetarako, tabernan lan egiteko... 616889923.

Tarot kontsultak. 943766214.

Goierritarrako iragarki laburrak:

hitz bakoitzeko 0,63 euro.

Iragarkia bi aldiz argitaratuko da Goierritarran, behin Goierriko Hitzan eta 7 egunez egongo da www.goierrikohitza.info webgunean.

943 88 96 12

goierritarra@goierrikohitza.info


gh@goierrikohitza.info

ANIMALIAK

salgai

Astarra salgai. 250 euro. 943180388.

4 hilabeteko setter ingeles txakurra salgai. 160 eurotan. 659219237.



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki)

659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 2 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
ajentzia

9:30etik 19:00etara
EGUARDIZ IREKITA



Egurrezko
lehioak,
kontraleihoak,
ateak eta
eskailerak
neurrita.



**JANTZI ZURE ETXEA
EGURREZ**

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa 20491 LEABURU



HANKARA
podologia zentroa

Tel.: 943 887 946

Zelaeta-berri plaza,4 **BEASAIN**



Gabiriako Hilario Goiburu eta Maria Kristina Jauregiren arteko ezkontza 1946. urtean

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Inazio Jauregi, Enrike Goenaga (Donostia), Jesus Goia, Rufino Jauregi, Zerbitzaria, Serapio Jauregi, Luis Goia, Eugenio Murua, Maria Luisa Jauregi eta Roman Jauregi.

Erdiko ilaran: Bizente Jauregi, Soinujolea, Blasa Jauregi (Etxetxo), Patxi Izuzkiza, Roman Unanue (Medikua), Luziano Jauregi, Sara (medikuaren emaztea), Joxepa Goia eta Inazio Gorrotxategi (apaiza).

Beheko ilaran: Luis Jauregi (Etxetxo), Maria Joakina Goiburu, Eustasio Jauregi, Hilario Goiburu Amezaga (Santes-teban), Maria Kristina Jauregi Goiburu (Arretxemendi), Petra Pikasari eta Franzisko Goia.



**RENAULT
LAZKAO GARAJEA**

Tel.: 943 882 442 / 943 888 901 Faxa: 943 888 901
Senpere Industrialdea LAZKAO



**Garbiketa
Zerbitzu
Integrala**

Enpresen mantentzea

Tel./Faxe: 943 188 194 Mug.: 696 999 117
Kale Nagusia, 25, 1. esk. IDIAZABAL

Kol. zkia.: 764



Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia
Artikulazio eta ahoko minak

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

DR. JOSE
GISASOLA

3998 Elkartokidea

OSTEOPATIAN MEDIKUA



BIZKARREKO MINAREN TRATAMENDU NATURALA
Lumbalgia, Hernia Diskala, Zefalea, Migraina, Artrosia, ATM

Osteopatia lumbalgia, hernia diskala, bizkarreko zein buruko mina, artrosia eta antzerako ondoezak, ezur eta nerbioetan sorturikoak, sendatzen dituen medikuntzaren espezialitatea da. Gure eginkizunekin zuzenki erlazionaturik dauden eta bizi kalitatean eragin handia izan ohi duten minak gaititzen laguntzen digu medikuntzaren alor honek.

Jose Gisasola osteopatian medikua da eta urteak daramatza tratamendu naturalez baliatuz gisa honetako gaitzekin lanean.



Aurrez hitzordua hartuta:

629 45 20 53 - jgisasola@telefonica.net

Andra mari, 13 Sol.Art. Ezk. / 20200 Beasain (Gipuzkoa)

Urbietan, 39 - 1. Ezk / 20006 Donostia (Gipuzkoa) / T 943 471 885

reklama




BARANDIARAN
zeramikak

ERREF. MAK DISEINUAK PROIEKTUAK BAINUAK HIDROMASAJ

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com





Elbarrena industrialdea

Zaldibia

Tel.: 943 888 232

herrietako jaiak
despedidak

Gipuzkoako mozorro dendarik handiena

